



comisiones obreras de euskadi  
euskadiko langile komisioak

## **Martxoaren 8a. *Emakumearen Nazioarteko Eguna* Ebazpena (2011eko martxoak)**

---

Euskadiko Langile Komisioak Sindikatuko Konfederazio Sindikalak krisi ekonomiko testuinguruan egingo dio aurre aurten Emakumearen Nazioarteko Egunari. Politika makroekonomikoak alde batera utzi ditu azken urteetan indarra hartu duten berdintasunaren inguruko politiketara bideratu diren ahalegin eta kezkek. Testuinguru honetan ekonomiaren susperketak tokia uzten die aldaketa eta berrantolaketari baina ezin da emakumeek lan merkatuan pairatzen duten bazterketa eta berdintasun eza alde batera uzteko aitzakiatzat hartu.

2010. urtean emakumeen langabezia tasa %11,56an egon da (688.631 emakume) gizonezkoen %10,32aren aldean. Duela hiru urte, emakumezkoen langabezia tasak gizonezkoena bikoizten zuen ia baina azken urtean gizonezkoen tasa emakumezko tasara gerturatu da krisiak gogorrago eragin duelako gizonezkoen sektoreetan. Egoera honek agerian uzten du emakumeen lan egoera prekarioa eta lan egoeraren egiturazko segregazio historikoa, gizonezkoen langabezia egoera tasa kointurazkoa den bitartean. Bestetik, emakumeek lan bila ematen duten denbora ere gizonezkoek ematen dutenaren bikoitza da jasaten duten bazterketa bikoitza dela eta, sexua batetik eta adina bestetik. Enplegurako sarbidean eta sustapenean zailtasun handiagoak izaten dituzte ondorioz denbora gehiago pasatzen dute epe luzeko langabezian.

CCOOK emakumeen babes sozialari eragiten dioten eta gaurkoa bezalako krisi egoeran areagotzen diren soldata desberdintasunak eta denborazkotasuna salatzen jarraituko du. Defizit publikoaren murrizketak Administrazio Publikoko langileen soldata jaitsiera ekarri zuen, eta emakumezkoen gizonezkoen baino gehiago eragin die, batetik emakumezkoak gizonezkoak baino gehiago direlako eta bestetik enplegu publikoan jasotzen duten soldataren batzbestekoa ere gizonezkoena baino txikiagoa delako.

CCOOK ohartarazi du, emakumeen baldintza prekarioenak (denbora partzialeko lana, denborazkotasuna, soldata desberdintasuna epe luzeko langabezia, enplegurako sarbide zailagoa ...) seme-alabak eta senideak zaintzeko karrera profesionalean ematen diren etenaldiei gehituta, pentsio eta gizarte babeserako sarbidea baldintzatzen dutela. Arlo horretan positiboki baloratzen dugu "hazkundera, enplegua eta pentsioen bermerako AKORDIO EKONOMIKO ETA SOZIALA". Emakumeen pentsioen kontributibitatea hobetzen duelako seme-alaben zaintzarako hiru urteko eszedentzia kotizatutzat hartzen duelako, erretiroko pentsio kontributiboa eskuratzeko 15 urteko gutxieneko epea mantendu delako eta etorkizuneko pentsioen kalkuluan seme-alabak zaintzeagatik ematen diren hutsuneko bi urte arteko epealdiak kotizatutzat hartzeagatik. Ekintza positiboko neurri hauek beharrezkoak dira lan merkatuan emakumeek pairatu duten bazterketa zuzentzeko, Europar Parlamentuko Emakumearen Eskubide eta Genero Berdintasunaren Batzordearen "zahartzen ari den jendartean emakumeek duen paperaren" inguruko txostenak aholkatzen duen moduan

CCOOK, emakume eta gizonezkoen arteko berdintasunarekin lotuta dagoen inbertsio publikoan eman diren atzera pausuak salatzen ditu baita 2011 urterako aurreikusita zegoen

aitatasun baimena lau astetara zabaltzearen atzerapena. Familiaren zaintzaren erantzukizun banaketan aurrera egiteko neurri adierazgarri eta eraginkorrenetakoa izanda.

Gauzak horrela, krisiak, agerian utzi du emakumezko eta gizonezkoen arteko benetako berdintasuna bultzatuko duten egiturazko aldaketak sustatzeko gobernu eta alderdi politikoen nahia eskasa dela. Horren adierazgarri tratu berdintasuna eta emakumezko eta gizonezkoen arteko aukera berdintasunari bideratutako hainbat erakunde eta organismo publikoen desagertzea, estatu mailan zein autonomia mailan. Berdintasunaren Ministerioa desagertu egin da (orain Osasun Ministerioaren barruan dago) eta atzerapauso esanguratsua da genero politikan. Gobernuai berdintasun gaiak maila gorenen eta erantzukizunetik lantzeko agintzen duten Europa eta Nazioarteko berdintasunerako konpromisoekiko haustura eragiten du.

Euskadiko CCOO horrelako egoera eta politika murrizgarriak salatzen jarraituko du eta negoziazio kolektiboaren bitartez enpresetako berdintasun neurri zein planen negoziazioan aktiboki parte hartuko du enplegurako sarbidea eta sustapena, prestakuntza, soldatak, kontziliazioa, sexu jazarpenarenaren prebentzioa eta abar lantzeko emakumeen laneko zein bizitzako baldintzak hobetu ahal izateko.

Hurrengo Erreforma Programa Nazionalek, Europako Batzordeak 2010eko irailean onartutako Emakumezko eta gizonezkoen arteko Berdintasunerako Europako Estrategiako edukia jaso behar dituzte, enplegua sortu, ordainsariak, berdintasuna erabakiak hartzeko orduan, duintasuna, zuzentasuna eta sexu indarkeriaren amaiera bezalako gaiak, lortutako aurrerapenak berreskuratzeko estrategian jasotzen diren aholkuek gain.

2010eko martxoan, New Yorken ospatu zen Ekintza Plataformaren (1995) errebisiorako Nazio Batuen Bilerako Saio Berezia (Beijing 15), mugimendu sindikalak, herrialde guztietako ordezkariak handi batek ordezkaturik, emakumezko eta langile diren milioika pertsonaren egoeraren inguruko kezka agertu zuen. Sortu ez dituzten baina berdintasun, duintasun eta pobreziarik gabeko egoeran bizitzeko duin bat izateko, aukeran eragin dien munduko hainbat krisietako biktimak izan dira emakumeak. Genero berdintasuna eta emakumeen boteretasuna definitzen dituen marko politiko eta arauemaileak mundu eta estatu mailako ekonomien hazkuntza berrezartzera bideratutako programa eta politiken garapenean oinarritzen dela azpimarratu zuen gainera.

CCOO indarkeria matxista salatzen jarraituko du geure herriko gaitzik handiena baita oraindik. CCOO horren aurka jarduteko estrategia eta mekanismoak indartu daitezela exijituko du. Horrela, emakumeen aurkako edozein indarkeria mota errefusatzeko dugu, gatazka armatuen biktimak direnean, pertsonen salerosketako biktimak direnean edo indarkeria justifikatu edo onartzen duten kultura zein erlijio integrismoetako biktimak direnean.

**Euskadiko Langile Komizioak langile eta herritarren parte-hartzea eskatzen du martxoaren 8an ospatuko diren ekitaldi zein manifestazioetan jendarte berdinean, bidezko eta demokratikoago batetan bizi ahal izateko aurrerapausoetan konpromisoa eta erantzukizunak eskatzeko.**